

# Bi ikuspegi

TXILLARDEGI



**AMAITU** egina da aurtengo UEU. Zoritzarrez! Hizkuntza Sailak urteroko egiten du Nafarroako euskalki baten azterketa bizia: bertara joanez, eta bertako hiztunekin zuzenki mintzatuz.

Aurtengoan Erroibar hautatu genuen. Eta Uretako Patxi Agorretaren laguntza. desagertzear dagoen nafarrena-mota honen lekukotasuna bildu dugu.

Inaki Gaminderekin joandako taldeak zauskada gaitza jasan du: lekukoak laurogei urterik gorakoak izan dira. Bizkarretan gelditzen diren azkeneko bitanleek, euskaraz ez dakite.

Erroibar osoa, hobeki esan. Auzoigoeko eskualde osoa bezala, bestalde, hustu gero da, jenderik batera gabe geldituz. Mende-haseran 264 lagun bizi ziren Bizkarret-Gerendian udalean, 47 etxetan. Zenbat dira gaur? Ekialdeko Nafarroa guztia kinka horretan dago. Eta eskualdeak, toponimo-zerrenda bihurtu dira.

Aski da 'Txepetxen' 'El estado actual del vasculence en la Provincia de Navarra' liburu zehatz eta hungiagarria berrikurtzea, husketa-arazo honetaz jabetzeko: «...cuando la última de sus casas se haya quemado vacía... el euskera habra dejado en Navarra de ser Historia viva, para comenzar a ser Arqueología...» «En Eguillor no hay más que dos familias... En Aróstegui quedan cinco familias... Beramendi, nueve familias... Oroquieta, 13 familias...»

Aragoi Garaian orain dela bost mende ezagutu zuten egoera gogorazien du honek: Orus, 3 lagun; Basaran, 6 lagun; Osan, 9; Escuer, 9; Lárrede, 18; Espierra, 24... Toponimoak ditugu zerbaiten lekuko: Arguisal, Basa-ibaia, Larrés, Acumuer, Javierre, Belarra, Sarraul-ekualdea (gaur 'El Serrablo')... Erdaldunke-ta, husketa, «arkeologia», Txepetxen hitza errepikatuz. Baina... Larraonan hiru dugun amaldiak, «euskal» agintaritzatik paratutako ukaldi guztien gainerik, horko gazteria euskaltzale suharrak, besterik idarokitzen dute. Euskal Herri honek, saldukeria eta otzopoz guztien gainerik, bizi egin nahi duela. Eta piztu egingo dela.

# Zer egin?...

GEXAN LANTZIRI



**EUSKALDUNON** EGUNKARIA ipa irraldeko euskaltzalegoari bere eguneroko egunkari gisa hararazteko? Eguneroko irakurgai ezin utzia bilaka-arazteko? Ez dakit xuxen zer, baina zerbait egin beharrean aurkitzen gara dela dudarik ez da...

Amets bat gehiago dela? Orainokoa bai... Baina, amets huts ez halere. Halabaina amets hau ere, beste askoren gisara, euskaltzale abertzale suharrak gogoan hartuko duten heinaren arabera obratzen joanen baita. Honelako amets bati ere, euskaltzale abertzaleek baizik ez dieziokete gorputz eder bat eman, euskarazko irakaskuntzari, irratit-telebistari, antzerki-pastoralari etabar luze bati eman dioten bezala.

Bada jada kasik hiru urte. EUSKALDUNON EGUNKARIA, herritarren ekimenak bultzatuturik abiatu zela, hegoaldean indartu egin bada, iparraldean ordea ez du hedamen handirik lortu. Euskararen geroarentzat beste edozein bezain garrantzitsua dela EUSKALDUNON EGUNKARIA, ez gara oraindik aski oharu iparraldean. Ordu liteke gauden erdiloeniatik atzartzen hasteko...

Noizbait irartzari behar genuke bai, eta hasteko sustengu talde arikor bat muntatu. Jada ene inguruko lagun batzuei aipatua diet. Beharbada, lerro xume hauen irakurleetan ere nor edo nor gertatuko da EUSKALDUNON EGUNKARIAren sustatzailekide izan nahiko duenik. Pentsatzen dut horrelakoak beharhala ele eginen duela Luzien Etxezaharreta eta Mixel Esteban kazetari ezagunekin. Edo berdin niharekin.


# HEMEROTEKA

● EL MUNDO

## Salaketa

1992. Martxo. Jose Ramon Treviño lanean ari da apaiz katoliko gisa. Ez du ezkututzen askapen teologiatik eta Euskal Herriko ezker erradikalaren tesiatatik hurbil dagoela. Era berean, ezker ez du erakusten horrek eliztarrek mintzen dituenek. Norbaitek atean jo du. Berandu da. Atea ireki eta aurrean Ignacio Rekarteren aurpegia ikusten du; horrek atentatu bat egin berria du Santanderren, baina horretaz Treviñok ezin du ezer jakin. Pentzatzekoa da parrokoa artega jarriko zela. Rekarte ondo ezagutzen du. Lehenago, heroimari uzten lagundu zion. Logikoa da, zehaztasun handirik gabe bada ere, berak —auzoko beste guztiek bezala— susmatzea gaztea abertzalismo armatuen esparrutik hurbil egon daitekeela.

Une horretan, dilema morala oso termino gordinetan planteatuta gelditu da: edo danbada batez atea itxi eta pasma-ri deitzea edo laguna —eta horrekin zetorrena— etxean hartu eta galderarik ez egitea. Bigarrena aukeratu



GALLEGO & REY / DIARIO 16

zuen. Ez dakit horrelakoetan legeak eskatzen ote duen susmoak gure barrukotasuna usteltzea memoriatik bizitza honetan mezezi duten gauza gutxietao bat —adiskidetasuna— ezabatzera beharzeraino. Nik, niri dagokidanez, gauza bakarra dakit, hain zuzen asko kostako litzaidakeela berriro ere nire buruari ispilu batean begiratzea baldin eta egunen batean larri dabilen lagun bati etxea irekitzeko lehenago zigorren egiaztageria eta portiera onekoa ere erakustera behartuko banu.

Oinarriko arau horrekiko fideltasuna dohainikakoa dugu Madrilin; oraingo behintzat, eta Corcuera Jaunak eragozpenik jartzen ez duen bitartean. Euska-

din, duela hiru eguneguz goroztik eta Auzitegi Gorenaren irizpidearen arabera, sei urteko kartzela zigor batez ordaintzen da.

... Eta Juan Guerra, kalean. Baita Al Kassar ere.

GABRIEL ALBIAC

● EL PAIS

## Errusia ezegonkorra

Errusiako Estatu berriaren kapital nagusia den Boris Ieltsinen legitimitea azkar debaluatzen ari da, nahiz eta erusiarrak aurreko apirilaren 25ean bere alde agertu ziren. Ieltsinen irudia-

ren higadura, neurri handi batean, aurreko asteburuan indarrean jarritako diru erreforma konfiskatzailearen ondorio izan da. Kalte materiala gora-behera —hori berdindu baitaiteke—, erustarrek berriro ere sentitu dute oso errealitate gogor bat: Ieltsinen agindupean boterea erabiltzeko eskemak sobietar instituzioek bezain eraz baziertzen ditu giza faktorea eta jende arruntaren interesak. Honek esan nahi du —eta Ieltsinen taldearentzat hemen dago garrantzitsua, baita arriskuetsua ere— tradizio formal leunagoak hartzen badituzte ere eta, beraz, herriak ez duela iraganaldiarekiko lotura hautsi.

EDITORIALA

# ZUZENDARIARI

## CATen ez dute euskara maite

Nabarmena da KTE edo CATEko arduradun politikoei euskara bost axola zaiela. Ez da gauza berria, badakit, baina jasan ezina bihurtu zait eta nazkatuta nagoenez gero, publikoki salatzea erabaki dut. Ez dut uste beharrezkoa izango denik baina oraindik ere des-pistaturen bat geratuko balitz argi esango diot: CATen ez dute euskara maite, are gehiago, ez dute Udalak onartutako euskararen erabilpenaren normalkuntzarako araudia betetzen. Hots, nahi dutena egiten dute eta alper-alperrikakoa da Zuzendaritza Bartzordean etengabeko salaketak egiten ihardutea eta euskara behin eta berriz ahaztu egiten dutela gogor araztea. Guzti honek ez du ezertarako balio.

Azken adibidetzat, hor dituzue kantari baten jaialdia iragartzeko erdara hitsez kaleratutako txartelak (zuzen hiltzaile baten semea eta PSOEko botoemailea den kantari batanak alegia). Gure hiriaren izen ofiziala ere ez dute errespetatzen eta erdara hitsez agertzen da, hau San Sebastian da eta kitto.

## Elkarrizketa bidez irtenbidea

Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) euska handiz hartu du euskaltegi libreei dirulaguntza instituzionala ukatzeko hartutako erabakia. Euskararen mugimendu sozialetik elkartanaren beharra baldinartu de-nean, ez dugu uste honelako erabaki batek elkar-ulertze eta lanaren aukera eragiten duenik.

Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako erakunde herritarrek izugarriko lana egiten dihardute urte luzetan eta ezinbesteko bilakatu dira Euskal Herriko hizkuntz normalkuntza aurrera eramateko.

Beraz, euskaltegi libreek (AEK, IKA) mentu honen bizi duten kinka lamiarekin bat eginez, helduen euskalduntze eta alfabetatzerako erakunde herritarrei elkarrizketaren bidez irtenbidea eman diezaien eskatzen du Udaleri Euskaldunen Mankomunitateak.

J.M. BELDARRAIN Donostia

ANTTON IZTUETA MAIZ Alitoz (Gipuzkoa)

# GAIA JARRITA



## San Inazio

Inazio gure patroia handia kantak dioen bezala iritsi zaigu, gure herrian festarik ez zen bestela. Umoreari ongi etorri nahigabeari eskela, nahiz eta jakin nahi duten denak etortzerik ez dutela, giro jatorra maite dutenak Azeptitira datorrela.

SEBASTIAN LIZASO

# Egunkaria

Bartzorde: Perekidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



OJD: IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE  
Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaris:	ISAKI URUA
Gerentea:	FERMIN LAZKANO
Zuzendaria:	MARTELO OTAMENDI
Zuzendariordea:	LUZIAN ETXEZAHARRETA
Zuzendari Komertziala:	JUAN INAZO HARTSUGA
Sustapena:	NERIA AZURMENDI
Publizitate:	MARI JOSE SARASA

Espainiako Publizitate: PUBLICITAS  
Captain Maya 1.2a 28020 Madrid • 91 555 11 01 / Fax: 91 556 29 29

**HELBIDEAK**  
Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20160 Lasarte-Oria • 37 15 45 / Fax: 36 54 93  
Egoitza soziala, Publizitate eta Administrazio: Antso Jakituna. 16-1 / 20010 Donostia / 46 90 22 / Fax: 45 59 57  
Arabak: San Antonio, 20-1. ezker / 01005 Gasteiz / 23 38 72 / Fax: 23 38 73  
Nafarroa: Inatze Monastegia, 45-13. esk. / (Iruñeko dorrea) / 31011 Iruñea / 17 80 78 79 / Fax: 17 80 77  
Bizkaia: Zabalburu, Enparantza, 2-1. ezker. / 48003 Bilbo / 410 40 46 / Fax: 410 37 15  
Lapurdi / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 503 Posta kutxatila. / 64105 Baiona / 59 59 35 75 / Fax: 59 25 75 11